

IRAGARKIA

26. ALDIZKARIA - 2026ko otsailaren 5a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ANTSOAIN

Aldaketa, 14. ordenantzan (prezio publikoak arautzen dituen hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloetako ikastaro eta jardueretarako sarrera, izen emate edo matrikuletarako)

Antsoaingo Udalak, 2025eko urriaren 29an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen 14. ordenantza fiskalaren aldaketa (prezio publikoak arautzen dituen hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloetako ikastaro eta jardueretarako sarrera, izen emate edo matrikuletarako). Hasierako onespeneraren iragarkia argitaratu zen 2025eko azaroaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean. 30 egun balioduneko jendaurreko aldi ez da alegaziorik izan; beraz, behin betiko onetsita geratzen da aldaketa, bat etorritik martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12., 13. eta 35. artikuluekin (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea), eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea),

Antsoainen, 2026ko urtarrilaren 14an.—Kontu-hartzailea, José María Gainza Ordoqui.

ONETSITAKO ALDAKETA

Tarifen eranskinari 6. puntua (eta azkena) gehitzen zaio, "Epigrafeen gaineko oharren" barruan.

6.—Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek doako sarbidea izatea Udalaren kirol jardueretara. Kalteberatasun-egoeran dauden emakumeen errehabilitazio pertsonala eta emozionala erraztera bideratutako berdintasun, gizarteratze eta laguntza integraleko udal politiken barruan, ezartzen da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek doako sarbidea izaneko dutela Udalak antolatutako kirol-jardueretara. Eskabidea Udaleko Kirol Zerbitzuan izapidetu beharko da, zeinak dokumentazioa egiaztatuko baitu eta jarduerara joateko baimena emanen baitu.

Iragarkiaren kodea: L2600520